BEHIN BEHINEKO LAN KONTRATUA AMAITUTAKOAN KALTE ORDAINEI BURUZKO EBAZPENEN INGURUAN

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak irailaren 14an ezagutzera eman duen ebazpenenaren bidez adierazi berri du, lana bitarteko kontratu batekin egin izanak **ez dakarrela ezinbestean langileak kontratua amaitzeagatik dagokion kalte-ordaina eskuratzeko eskubiderik ez izatea**. Beraz, kaleratzeagatik ematen diren kalte-ordainak guztientzat berdinak izatearen aldekoa da, kaleratzerako "arrazoi objektiborik" ez dagoen bitartean. Zio horien artean ez dago kontratua mugagabea izatea ala ez. Madrileko nahiz Euskadi Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiek berretsi egin dute sententzia hau.

Horren inguruan hainbat kontu argitu beharra dago:

1.-**Sententziak kontratu laboraletan du eragina, hau da, lan-legepekoen iraupen jakineko nahiz bitarteko (aldi baterako) kontratuetan.** Hezkuntzan ondorengo sektoreetan ematen dira kontratazio horiek: irakaskuntza pribatuan, *Haurreskolak* Partzuergoan, Eusko Jaurlaritzako eta Nafar Gobernuko lan-legepeko kolektiboetan, Nafarroako 0-3 udal haurreskoletako langileengan baita EHU-UPV eta UPNAko lan-legepekoengan ere.

2.- Sententziak -era zuzenean- **babesa ematen dio bitartekoen kontratuen iraungitzeari**, kontratudunak lanpostua gordetzeko eskubidea duen ordezkapen bat (borondatezko nahiz derrigorrezko eszedentzien kasuan) egiten duenean edo -erakunde edo enpresa publikoen kasuan- lanpostua bete arte (normalean EPE baten bidez). Horrela, esaterako, *Haurreskolak* Partzuergoak iraungi egin ditu kontratu mota hauek eta egin daitezkeen beste motatako erreklamazioez gain, behintzat kalte-ordainak jaso beharko lituzkete.

3 -Sententziak **lan-legepeko aldi baterako kontratu guztien iraungitzeen kasuetan urteko 20 eguneko kalte-ordaina erreklamatzeko aukera ematen digu**. Erreklamazio hau momentu honetatik aurrera egiten diren kontratuetarako eta iraungi zirenetik urte bete baino gehiago pasa ez direnetarako egin daiteke. Kalte-ordainaren zenbatekoari dagokionez, sententziak aldi baterako kontratutako langileak muga gabeko langileekin parekatzen ditu.

Beraz:
-Irailaren 14tik aurrera aldi baterako kontratua bukatu zitzaienei norbanako erreklamazioak egin ahal izateko ate bat zabaldu dela ematen du. Sententziak aldi baterako langile guztiei orain arte jasotzen zituzten 12 egunen eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezartzen dituen 20 egun arteko aldea erreklamatzeko aukera ematen die. Langileak berak lan-arloko epaitegiaren bitartez egin ahal du erreklamazioa abokatu baten beharrik gabe. Edozein kasutan, afiliatuak sindikatuaren zerbitzu juridikoez baliatu daitezke tramite hori burutzeko.

-**12 eta 20 egunen arteko aldearen erreklamazioa** ere planteatu daiteke aurretik **etendako aldi baterako lan-legepeko kontratupean izan zirenentzat** (lan eta zerbitzu jakinetarakoak, lan pilaketagatikoak...) eten zenetik urte bat baino gehiago pasatu ez bada. Kalte-ordainik jaso ez zuten bitarteko kontratuen kasuan, 20 egun.

Horietako egoera batean daudenak, animatu nahi ditugu dagokien erreklamazioaren prozesua has dezaten. Horretarako, **steilas**-en zerbitzu juridikoekin harremanetan jarri beharko dira, ohiko moduan. Kasu honetan, denbora garrantzitsua da eskubideak galdu egin daitezke eta.

Erakunde edota enpresa publikoetan kontratu administratibopean lan egiten duten bitarteko funtzionarioen kasuan -gaia zailagoa izanda ere eta sententzia honetan jasota egon gabe- **kalte ordaina erreklamatzeko aukera ezin da guztiz baztertu jabetza hartu eta jabetza utzi dutenentzat. (Hau da, publikako irakasle ordezkoentzat).** Badaude, Europako Auzitegiko beste sententzia batzuk bitarteko funtzionario eta mugagabeko lan-legepeko langileen arteko parekatzea planteatzen dutenak.

Kasu hauetan erreklamazio ekonomikoak aurkezteko epea **4 urtera** bitartekoa da. Dena den, zuhurrak izan behar dugu gaiaren inguruko erabaki judizial zehatz batek behar duen prozesu baten emaitza aurreratzearen orduan. Izan ere, prozesu horrek ez du erreferente zuzenik.

Dagoeneko, beste sindikatu batzuk hasi dira erreklamazioak jasotzen eta, aurreratzeko asmorik gabe, jakitera ematen dizugu sindikatuko zerbitzu juridikoak diseinatzen ari direla egin beharrekoak. Epe motzean jakinaraziko zaizue zein den jarraitu beharreko protokoloa erreklamatu nahi dutenentzat.

2016ko urriaren 27an